




XXVI. Bertsopaper lehiaketako saridunak, Eneritz Artetxe eta Maddalen Arzallus bertsolariekin.



Antolatzaileak:

**AZKOITIA BHI INDARLAN
GURASO ELKARTEA**



Laguntzailea:



ARAUTEGIA

1. PARTE HARTZAILEAK

Hiru multzotan banatuko dira parte hartzaileak:

- A) DBHren 1. eta 2. mailak
- B) DBHren 3. eta 4. Mailak
- C) BATXILERGOA

2. EGIN BEHARREKO LANAK

- Gutxienez lau bertso, gehienez sei.
- Gaia eta neurria libreak
- Bertsoek berriak izan behar dute, hau da, inon aurkeztu gabeak.
- Parte hartzaile bakoitzak bi bertso sorta bidal ditzake.

3. LANAK BIDALTZEKO EPEA ETA BALDINTZAK.

- Lanak jasotzeko azken eguna 2018ko **maiatzaren 26an** izango da.
- Bertso sortak posta arruntez edo e-postaz bidal daitezke.

4. NORA ETA NOLA BIDALI

- Posta arruntez bidaliz gero: Bertso sortak ezizenez sinatu behar dira. Beste azal batean egilearen izen-abizenak sartuko dira, kanpotik ezizena bakarrik jarriko da. Bietan, zein atalekoa (A/B/C) den adieraziko da. Lanen hiru kopia bidali behar dira helbide honetara:

AZKOITIA BHI
XXVII. BERTSOPAPER LEHIAKETA
Juin, 4
20720 – AZKOITIA (GIPUZKOA)

- E-postaz bidaliz gero, bi dokumentu bidaliko dira word formatuan. Lehenengoan bertso sorta eta ezizena agertu beharko dira, eta bigarrenan egilearen datuak bertsoak@azkoitiabhi.eus era bidaliko dira.
- E-mailaren izenburuan egilearen atala (A / B / C) eta ezizena adieraziko dira.

5. SARIAK

Multzo bakoitza bi ataletan banatuko da: ikastetxeko ikasleek osatutakoa bata, eta ikastetxetik kanpokoak osatutakoa bestea.

Hiru multzotan sari bera izango da.

1. saria: 100 € eta oroigarria.
2. saria: 50 €

Partaide bakoitzak sari bakarra jaso dezake soilik.

6. SARI BANAKETA

Sari banaketa **ekainaren 5ean** eguerdiko 13:00etan, Baztartxo aretoan egingo den bertsolari jaialdian. Sarituek euren lanak abestuko dituzte.

7. EPAIA

- Epaimahaia Guraso Elkartearen kideak, bi bertsolari eta irakasle batek osatuko dute eta erabakia aldaezina izango da.
- Sarituen berri ekainaren 1ean emango da komunikabideen bitartez eta saritu bakoitzari adieraziko zaio.
- Txapelketan parte hartzeak, nahi eta nahi ez, aipatutako oinarri hauek onartzera behartzen du.